

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala****Durangoko Udaltzaingoko 3 Udaltzain Lehen Agente-Segurtasuneko Ardura-dun plaza jabetzan betetzeko lehiaketa-oposizioaren deialdia eta prozesuaren oinarri arautzaileak.**

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 13an, ondorengo akordio hauek hartu zituen:

1. Durangoko Udaltzaingoa 3 Agente Leheni-Udaltzaingoaren Segurtasuneko Arduradun dagozkien plazak hornitzeko deialdia onartzea eta ezagutza ematea.
2. Aipatutako deialdia arautuko duten hautaketa-prozesuaren oinarriak onartzea:

Lehena.— Helburua, deialdiaren ezaugarriak, deituriko plazak eta eginkizunak

Deialdi honen helburua hau da: Durangoko Udaltzaingoaren (3) udaltzain lehen agente lanpostu hornitzea, barne promozio sistemaren bidez. Lanpostuak Administrazio Bereziko Taldeari dagokie, zerbitzu berezien azpitaldea, Udaltzaingoa, eta C-1 taldeko titulazioari dagokion mailarekin, eta hutsik agertzen dira udal honetako pertsonal funtzionarioen plantillan. Hiru lanpostuek euskarako bigarren eskakizuna daukate ezarrita, eta baita hizkuntza derrigortasuna ere. Hiru lanpostuok Durangoko Udaltzaingoaren bulegoetan kokatzen dira.

NIP			Lanpostuaren izena Nombre del puesto	Taldea Grupo	HE PL	Derrigortasuna Preceptividad	Maila Nivel	Osa. espezifi. Comple. esp. (€)
Kod. Cod.	Azpikod. Subcod.							
412	3	4	Segurtasuneko arduraduna Responsable de Seguridad Ciudadana	C-1	2	01/10/1992	22	2.482,46
412	3	5	Segurtasuneko arduraduna Responsable de Seguridad Ciudadana	C-1	2	01/09/1992	22	2.482,46
412	3	6	Segurtasuneko arduraduna Responsable de Seguridad Ciudadana	C-1	2	01/03/1992	22	2.482,46

Hautaketa-prozesuak honako hauek izango ditu: lehiaketa-oposaketa, prestakuntza-aldia eta praktikaldia. Beraz, lehiaketa-oposizioaren hautaketa-sistema osatzeko, hautaketa-prozesuaren beste fase bat egingo da, prestakuntza-ikastaro bat eta praktikaldi bat, biak ere nahitaezkoak eta baztertzailak.

Lehenengo agenteen formazio-ikastaroa eta praktikaldia egiten diren bitartean, jaso beharreko ordainsariak, uztailaren 17ko, 4/1992 Euskal Herriko Poliziaren legeak zehazten dituenak izango dira.

Deitutako lanpostuen kopurua handitu egin daiteke hautaketa-prozesuan zehar, edozein arrazoi dela-eta, Udaltzaingoaren agente kategorian hutsik geratu daitezkeen lanpostuen arabera. Lanpostu handitze hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da alkatearen ebazpenaren bidez, eta bertan, hizkuntza eskakizunari dagokionez, derrigortasun-data ezarrita duten lanpostu-kopuruaren berri emango da.

Lanpostu handitzeari dagokionez, oinarri hauetan ezarritakoa hartuko da kontuan eta, hala balegokio, hautaketa prozesua amaitu baino lehen egin beharko da. Hautaketa-prozesua honakoak sartuko dira: lehiaketa-oposaketa, prestakuntza-aldia eta praktikaldia.



Honako hauek dira, besteak beste, plazaren funtzioak eta eginkizunak:

- Azpi-buruzagitzaren mende egonik, Udaltzaingoaren lan-txandak edo sekzioak zuzendu, koordinatu eta dinamizatzea eta azpi-buruzagia ordezkatzeko, berau ez dagoen bitartean, atzeratu ezin daitezkeen erabakiak hartzerako orduan, betiere, erabakion izaera kontuan hartuta.
- Bere lantaldea aldi-aldi ebaluatzea, irregulartasunak atzemateko eta zerbitzua hobetzeko. Halaber, zerbitzua hobetzeko gomendioak ematea buruzagitzari eta behar diren neurriak hartzea, ezarritako prozedura jarraituz, lantaldeko kideren batek arau-hausteren bat egiten badu kode deontologikoaren inguruan.
- Bere eta bere lankideen lanari buruzko txostenak lehenbailehen bidaltzea nagusi hierarkikoari.
- Taldeak behar dituen ekipoa eta materiala lortzeko kudeaketa-lana egitea, eta materiala behar bezala erabiltzea eta inbentarioa kontrolatzea.
- Lantaldearen lana kontrolatzea, ezarritako prozeduren arabera izan dadin, eta idazten diren txostenak egiaztatzea.
- Lantaldearen ibilgailuak, ekipoa eta uniformeak ikuskatzea.
- Bere mendeko langileen justifikatu bako absentziak jakinaraztea eta lantaldeko kideek egutegian egiten dituzten aldaketen berri ematea.
- Gertakari larri guztietara joatea.
- Kalean zerbitzuko langileak uneoro egotea bermatzea.
- Udaletxeko bulegoetan egin beharreko lanak salbu, lehentasunez kalean egingo du lan.
- Hurrengo txandaren arduradunari zerbitzuko nobedadeen eta momentuko egoeraren berri ematea.
- Bere betebeharrak uzten dioten heinean, agenteei laguntzea.

Bigarrena. — Parte-hartzeko baldintzak

1. Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Durangoko Udaleko karrerako funtzionarioek, baldin eta eskaintako lanpostuak betetzeko lanpostuen zerrendan ezarritako baldintza orokorrak eta betekizunak betetzen badituzte eta zerbitzu aktiboko egoeran, zerbitzu berezietan, seme-alabak zaintzeko eszedentzian eta Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 82. artikuluan aurreikusitako eszedentzian badaude. Era berean, aipatutako legearen 89.2 artikuluan aurreikusitako moduan, jarduneko zerbitzura itzultzen diren funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute.

2. Era berean, deialdi honetan aurreikusitako prozeduren bidez zerbitzu aktibora itzultzen direnei dagokienez, honako hauek ere parte hartu ahal izango dute: nahitaezko eszedentzian edo beste administrazio publiko batzuetan zerbitzuan daudenak, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 63. artikuluan xedatutakoaren arabera birgaituta daudenak, sei hilabete baino gehiagoz etenda daudenak eta gainerako borondatezko eszedentzia-egoeran daudenak ere.

3. Honako hauek ezin izango dute parte hartu deialdian:

- a) Karrerako funtzionario izendapenetik oinarritzko eskalaren agente gisa benetako zerbitzuak hiru urtez osatu ez dituztenak (Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 59.3.a) artikulua). 4/1992 Legearen 59.4 artikulua-aren arabera, jatorrizko kategorian edo eskalan benetan lan egindako denbora zenbatzeko, hau da, barne-sustapenean sartzeko aukera ematen duten administrazio-egoeretan, igarotako aldiari gehitu egingo zaio barne-sustapenean sartu aurreko praktikei dagokiena, betiere hautaketa-prozesua gaindituta badago.
- b) Falta larria edo oso larria egiteagatik eginkizun-gabetze irmoan daudenak, betiere, egoera horretan dauden bitartean.
- c) Lekualdaketaekin zigortutakoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoen Diziplina Araubidearen Erregelamenduaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.



- d) Interes partikularrengatiko borondatezko eszedentzian daudenak, baldin eta egoera horretan egon ez badira indarreko araudian eskatutako gutxieneko denboran.
 - e) Gaixotasuna edo akats fisikoa dutenek, baldin eta lanpostuaren eginkizunetan eragozpenak eragiten badituzte, betiere, aintzat hartuta otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan ezarritako osasun-bazterketak (Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Erregelamendua onartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duena).
4. Halaber, hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek egiaztatu beharko dute azterketa-eskubideei dagozkien tasak ordaindu dituztela hirugarren oinarriaren 5. atalean deskribatutako moduan, betiere, Durangoko Udaleko Ordenantza Fiskaletan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. — Eskabideak aurkezteko epea eta modua

1. Eskabideak aurkezteko epea 20 egun balioduneko izango da, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.
 2. Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko eskabideak, HAZen eta web-orrian (www.durango.eus) eskuragarri dagoen eredu normalizatura egokituak, Alkatetzara zuzenduko dira, eta HAZen (Barrenkalea, 17) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkeztu beharko dira.
 3. Hautagaiak eskabidean adierazi beharko dute oposizio-faseko ariketak zein hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi dituzten.
 4. Era berean, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probara aurkeztu nahi duten hautagaiak, prozesuan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dute hori, eta ez da onartuko proba horietan parte hartzea, eskabideak aurkezteko epearen barruan 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko eskaera egin ez badute.
 5. Bigarren oinarriko 4. atalean xedatutakoaren arabera, eskari-orriari azterketa eskubideen tasa ordaindu izanaren egiaztagiria erantsi behar zaio: 20,00 euro. Legezko langabezia-egoeran egonez gero, eta aipatutako tasari ordenantza fiskaletan aurreikusitako salbuespena aplikatze aldera, salbuespen hori behar bezala egiaztatu beharko da dagokion «lan-bizitzaren ziurtagiria» aurkeztuta, tasa ordaindu izanaren banku-frogagiriaren ordeztu. Tasa ordaintzerako orduan nahitaez adierazi behar da honako hau diru-sarreraren kontzeptu gisa: AGP+NAN zenbakia. Adibidea: AGP30677643. Ordainketa kontu honetan egin behar da: ES32 2095 0036 60 91 0733 6241.
 6. Eskabideak aurkezteko epea igarotakoan, formulatutako eskabideak lotesleak izango dira eskatzaileentzat.
 7. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Alkatetzak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du. Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta udaletxeko ediktu-oholean eta webgunean jarriko da ikusgai.
- Zerrenda horretan, baztertutako hautagai bakoitzari dagokionez, baztertzea eragin duten arrazoiak adieraziko dira, eta 10 eguneko epea emango da baztertzea eragin duten hutsegiteak edo dokumentuak zuzentzeko. Erreklamazio-epea igarotakoan, hautagaiak onartzeko eta baztertzeko ebazpena onartu duen agintariak ebatziko ditu aurkeztutako erreklamazioak, eta jendaurrean jarriko da aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

Laugarrena. — Epaimahai kalifikatzailea

Deialdi honetako epaimahai kalifikatzailea alkateak izendatutako kideen kopuru bakoitiak osatuko du, gutxienez bostek, eta horietako batek presidente gisa jardungo du eta beste batek idazkari gisa. Aldi berean, dagozkien ordezkioak izendatuko dira. Kasu guztietan, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak ordezkari bat izendatuko du, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen Lehen Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, eta, euskararen ezagutzak ebaluatzeko probetan, IVAPek izendatutako ordezkari bat izango da epaimahaiko kide.



Euskararen ezagutza egiaztatzeko proban egongo den ordezkaria HAEEk izendatuko du, eta froga honetan baino ez du parte hartuko, salbu eta kontrarik ezartzen ez bada.

Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek deituriko lanpostuetara sartzeko eskatzen den titulazio akademikoa edo handiagoa izan beharko dute.

Epamahir kalifikatzaileko kideen eta beren ordezkoren izendapena, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Durangoko Udakleko iragarki taulan eta web orrian iragarriko da.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu prozeduran, eta hala jakinaraziko diote organo eskudunari, baldin eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren erregimen juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada. Aurreko kasuetako bat gertatzen denean izangaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, betiere aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertaraturakoen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketa gertatuz gero, lehendakari diharduenak ebatziko du. Epaimahai kalifikatzailea ezin izango da agertu, ezta jardun ere, kideen erdiak baino gehiago berratu ezean, idazkaria eta presidentea barne, eta deialdia egin duen agintaritzari eskatu ahaliko diote adituak izendatzea, aholkulari gisa, hitzarekin baina botorik gabe jardungo dutenak. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituen probak egin eta zaintzeko behar diren laguntzaileen laguntza ere eskatu ahaliko dute.

Hutsegite edo gaixotasun kasuetan eta, orokorrean, arrazoi justifikaturen bat bada, organo kolegiatuaren kide titullarrak euren ordezkoei ordezkatzeko dituzte. Hutsegite, gaixotasun edo bestelako arrazoi legalen bat gertatzen bada, presidentearen ordezkari bere ordezkariak jardungo du eta, ordezkariak ezingo balu, hierarkia, antzinatea eta adin handieneko epaimahaikidea arituko da. Idazkariaren aldi baterako ordezkariak, etorri ezin delako edo gaixorik delako, bere ordezkariak beteko du eta, hala ez balitz, idazkariaren beraren akordio bidez egingo da.

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio:

- a) Prozeduraren objektibotasunaren arduradun diren aldetik, deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatzea, eta, hala badagokio, arau-hutsuneak integratzeko eta horiek aplikatzean sortzen diren kontraesanak gainditzeko behar diren akordioak hartzea.
- b) Oposizio-faseari dagozkion probak eta lehiaketa-faseari dagozkion merezimenduak baloratzea, edo zeregin hori egoki deritzenei agintzea. Horretarako, kalifikazio-epaimahaiak dagozkion erabakiak hartuko ditu, eta Durangoko udaleko iragarki-tauletan eta web-orrian jasoko dira. Interesdunek inpugnazioak egin ahal izango dituzte horien aurka, 5 eguneko epean, eta epaimahaiak berak ebatziko ditu inpugnazio horiek.

Horri dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 11. artikulua eta Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legearen 48.1 artikulua arabera, oposizio-faseari dagozkion probak (proba psikoteknikoak eta elkarriketa pertsonala) kudeaketa-gomendio bidez egin ahal izango dira, eraginkortasun-arrazoiengatik eta horiek betetzeko baliabide tekniko egokirik ez dagoelako, hau da, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako organoek egin ditzakete aipatutako frogok. Halaxe, proba bakoitza egin ondoren, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako organo zuzentzaileek dagokion puntuazio-proposamena egingo diote epaimahai kalifikatzaileari, eta honek emaitzak bere egingo ditu eta, ondoren, argitaratu egingo ditu.

- c) Puntuazio altuena lortu duten hautagaiak proposatzea, eta Alkatetzari proposatzea puntuazio altuena lortu dutenak izendatu ditzala Udaltzaingoko praktiketako lehen agente gisa, betiere, deituriko lanpostuak eta hutsik geratu direnak kontuan izanda.
- d) Epaimahai kalifikatzaileak proben ordena alda dezake.

**Bosgarrena. — Lehiaketa-oposaketa**

Hautagaiak oposizio-lehiaketa sistemaren bidez aukeratuko dira, betiere, barne-sustapeneko txandaren bidez. Bi fase horiek bata bestearen atzetik egingo dira, eta prestakuntza-ikastaro batekin eta praktikaldi batekin osatuko dira.

Oposaketa fasea

1. *Ezagutza ariketa, derrigorrezkoa eta baztertzalea:* gehienez ere, 50 puntu.

Test tipoko frogak izango dira, bertan oinarri hauetako eranskinetako gaitegian jasotzen diren ezagutzak ebaluatuko dira. Erantzun oker bakoitza erantzun zuzenaren heren batekin penalizatuko da. Galderak galdetegiko edozein gairi buruzkoak izan daitezke. Ariketa derrigorrezkoa eta baztertzalea izango da hautagai guztientzat.

Gehienez ere, 50 puntu emango, eta frogak gainditzeko, gutxienez, 20 puntu atera behar dira.

2. *Froga psikoteknikoa, derrigorrezkoa eta baztertzalea, hautagaien gaitasunak ebaluatzeko:* gehienez ere 10 puntu.

Ariketa honen bitartez Durangoko Udaltzaingoaren oinarritzko eskalaren lehen agente mailari dagozkion polizia-eginkizunak egiteko gaitasunak ebaluatuko dira. Ariketan test psikotekniko baten baldereari erantzun behar zaie idatziz. Honako aldagaiak ebaluatuko dira: ahozko gaitasunak, arazoizkoak eta gaitasun bereziak.

Galdetegiko galdera bakoitzak lau erantzun alternatibo izango ditu, baina lau hauetatik bakarra izango da zuzena.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu bat izango du, eta erantzun okerrak 0,333 puntu kenduko ditu. Erantzun bat baino gehiagoko galderak ez erantzuntzat joko dira. Erantzun ez diren galderak ez dira penalizatuko.

Froga hau 0-10 puntu izango ditu, eta kanpoan geratuko dira 5 puntu lortzen ez dituztenak.

Hautaketa sistemaren hurrenkera onari begira, Epaimahai kalifikatzaileak, eskatu beharreko gutxiengo maila kontuan izanik, proba honetan erakutsitako ezagutza-maila eta hautagaien identitatea jakin baino lehen, proba gainditzeko beharrezko gutxiengo puntuazioa non ezarri erabaki ahal izango du eta akordio hori argitaratuko du. Horrela, proba honetako puntuazioa lortzeko, aurreko paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, Epaimahai kalifikatzaileak ondorengo formula aplikatuko du:

$$HAP = (AP_{geh}/2) \times (1 + (PZ - m)/(PZ_{geh} - m))$$

Hau da:

- HAP = Hautagaiak lortutako azken puntuazioa.
- AP_{geh} = Proban gehienez lor daitekeen puntuazioa (Deialdiaren oinarrien arabera, proban lor daitekeen puntuazio gehiena: 10 puntu).
- PZ = Hautagaiak lortutako puntuazio zuzena:
- $PZ = Zuzenak - (Hutsegiteak \times 0,333)$.
- m = Epaimahaiak ezarritako proba gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazioa.
- PZ_{geh} = Probaren gehieneko puntuazio zuzena (Proban gehienez lor daitekeen puntuazioa zuzena = azterketa baten erantzun zuzenen kopurua, erantzun guztiak zuzen emanda).

3. *Froga psikoteknikoa, derrigorrezkoa eta baztertzalea, lan jardunarekin lotutako jarduerak neurtzeko:* gehienez ere, 5 puntu.

Froga psikotekniko honetan, derrigorrezkoa eta baztertzalea, nortasun-testa egingo da, deitutako lanpostuaren eginkizunekin lotua eta lan jardunarekin zerikusia duten jarduerak neurtzeko. Zehatzago esanda, hautagaien aspektu hauek neurtuko dira. Kudeaketa, berrikuntza, harremanak eta emozioa.

Ariketan 0-5 puntu emango dira, eta kanpoan geratuko dira 2,5 puntu lortzen ez dituztenak.



Hirugarren ariketa honetako datu objektiboak ondorengo frogetan ere erabili ahalko dira modu instrumentalean.

4. *Elkarrizketa pertsonala, derrigorrezkoa eta baztertzaila*: gehienez ere 5 puntu

Ariketa derrigorrezkoa eta baztertzaila. Elkarrizketa pertsonalean hautagaien jarrera eta gaitasunak neurtuko dira deituriko lanpostuetako eginkizun eta egin beharrekoen inguruan. Zehatzago esanda, hautagaien hurrengo gaitasunak neurtuko dira: motibazioa, lidergoa, erantzukizuna, arau eta disziplinarekiko arreta, tentsioarekiko erresistentzia eta arazoei aurre egin eta konpontzeko gaitasuna.

Ariketan 0-5 puntu emango dira, eta kanpoan geratuko dira 2,5 puntu lortzen ez dituztenak.

Elkarrizketa pertsonala egin aurretik, prozesuan parte hartzen duten pertsonen curriculum vitae sinplifikatua bete beharko dute, hautagaiei emango zaien formatu normalizatua. Curriculum vitae hori ez da puntuagarria izango, eta elkarrizketa pertsonala egiteko laguntza-elementu gisa baino ez du balioko.

Oposaketa faseko kalifikazioa egiteko, oposaketa osatzen duten froga bakoitzean lortutako puntuazioen batuketa egingo da.

Lehiaketa fasea

Ondorengo merezimenduak baloratuko dira:

1. *Espèrièntzia profesiona*l: gehienez ere 18 puntu

Udaltzaingoaren oinarritzko eskalan agente moduan egindako zerbitzuengatik: 0,1 puntu/hile osoko. Hilea baino zati txikiagoak ez dira kontuan hartuko.

Ondorio horietarako, karrerako funtzionario izaera lortu aurretik emandako zerbitzu aitortuak ere baloratuko dira, praktiketarako izendatuta egon den aldia barne, betiere praktiketako izendapen horri zegokion hautaketa-prozesua osorik gainditu bada.

2. *Prestakuntza eta hobekuntza kurtsoak*: gehienez ere, 10 puntu.

Gehienez ere 10 puntu arteko balorazioa izango dute lanpostuarekin zerikusi zuzena duten kurtsoak eta, baita ere, lehen agente plazari berez dagozkion gaitasun eta trebetasunekin lotuta daudenak.

Kurtoetako asistentzia behar bezala egiaztatu behar da diploma edo egiaztagiri bidez. Bertan, klase-orduak zehaztuta agertu behar dira:

Asistentzia baremo honen arabera baloratuko da:

- 1-10 orduko kurtsoak: 0,25 puntu.
- 11-30 orduko kurtsoak: 0,50 puntu.
- 31-50 orduko kurtsoak: 1,00 puntu.
- 51-70 orduko kurtsoak: 1,50 puntu.
- 71-90 orduko kurtsoak: 2,00 puntu.
- 90 ordutik gorako kurtsoak: 3,00 puntu.

Euskal Herriko Polizia Akademiak, Bilboko Polizia Akademiak eta Emakumearen Emakunde Euskal Institutuak antolaturiko edo emaniko kurtsoak baino ez dira baloratuko.

3. *Hizkuntzak*: gehienez ere, 2 puntu.

Europar Batasuneko ondorengo hizkuntza ofizialak hartuko dira kontuan: ingelese, frantsesa, edo/eta alemana.

- Europar Batasuneko C2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europar Batasuneko C1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europar Batasuneko B2 maila: 0,50 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europar Batasuneko B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

***Merezimenduak egiaztatzea***

Esperientzia profesionala: Durangoko Udalean eskuratutako esperientzia profesionala ofizioz sartuko da. Beste administrazio batzuetako esperientzia profesionala kontuan hartzeko, eskabidearekin batera administrazio publikoetan egindako zerbitzuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Ikastaroak: izangaiek alegatutako ikastaroak behar bezala egiaztatu beharko dira diploma eta/edo bertaratze-ziurtagirien bidez, eta horietan nahitaez agertu beharko dira ikastaroen irakastorduek. Ez dira baloratuko iraupena zehaztuta ez duten ikastaroak.

Merezimenduak baloratzeko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna hartuko da kontuan. Euskararen ezagutzari dagokionez, erreferentzia-data atzeratu egingo da hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko frogaren egin arte.

Seigarrena.— Euskera

Kontuan izanda deituriko lanpostuen 2. hizkuntza eskakizunaren derrigortasun-data iraungita dagoela, lanpostuak hornitzeko behar beharrezkoa 2. hizkuntza eskakizuna edo handiagoa baten jabe izatea. Horrela, prozesuan zehar euskara frogaren derrigorrezkoa eta baztertzaila egingo da. Euskarako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da (2 HE), Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak emaniko jarraibideei ekinez, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1 artikulua.

Ariketa hau gai edo ez gai moduan kalifikatuko da.

Salbuetsita izango dira 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen aipatutako tituluaren jabe diren hautagaiak, baldin eta egiaztatzea euskara frogaren egin baino lehen aurkeztu badute.

Salbuetsita izango dira 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen IVAPen 3HE, 4HE edo baliokideak dituzten hautagaiak.

Zazpigarrena.— Gaiaren zerrenda

Oposaketa faseko eta lehiaketa faseko azken frogaren amaitu ostean, eta, hala badagokio, euskara frogaren egin eta gero, epaimahaiak, dagozkion kalifikazioak kontuan izanda, gaiaren zerrenda osatuko du eta, zerrenda honekin, hautatuen zerrenda onartuko da.

6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren 27.2 artikulua eta emakume eta gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua aplikatuz, berdinketa egonez gero gaitasunari dagokionez, lehenetsia emango zaie emakumeei, baldin eta administrazioaren eskala edo mailaren baten emakumeen portzentajea %40a baino gutxiago bada. Neurri hau ez da aplikatuko beste hautagairen batek motiboren bat badu honetarako eta, beti ere, dena delako motiboa diskriminatzailea ez bada sexua dela-eta. Esaterako, hautagaia lana lortzeko zailtasunak dituzten kolektiboren bateko partaidea bada.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren kalteetan izan gabe, berdinketak bere horretan jarraituko balu, honela erabakiko da sailkapen ordena: lehenengo, oposaketa-aldian puntuaziorik altuena ateratu duenaren alde; bigarrenik, Euskal Herriko Tokiko Polizietan denbora gehiago eman duenaren alde, eta, azkenik, hautagai zaharrena joango litzateke.

Zerrenda horiek osatu ondoren, Udaltxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko dira eta alkatetzari aurkeztuko zaizkio Udaltzaingoaren praktiketako lehen agente izendatzeko proposamenarekin batera.

Aldi berean, eta izendapen osagarriaren proposamen moduan, agintaritzari azken bilkurako akta igorriko zaio. Bertan, puntuazio ordenaren arabera, frogak gaitasun arren deituriko lanpostuak gaitasun dituzten hautagai guztiak jasoko dira, betiere, oposaketa fasea gaitasun dutenen zerrenda argitaratu baino lehen lanposturen bat hutsik geratu eta bete beharko balitz betetzeko.

Epaimahaiaren erabakiak lotesleak izango dira izendapena edo kontratazioa egiteko ardura duen organoarentzat; hala ere, hori ez da eragozpen izango organo horrek kalifikazioak berrikusteko, indarrean dagoen Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen aurreikusitakoaren arabera.

**Zortzigarrena. — Azterketa medikoa**

Hobekien kalifikatutako pertsonak, lehiaketa-oposaketan emandako puntuazioak batu ondoren, deitutako plaza-kopuruaren kopuru berean, azterketa medikoak egin behar dituzte, Bigarren Oinarriko hirugarren puntuko e) letran aipatzen den bazterketa medikorako kausaren batean dauden zehazteko.

Azterketa medikoak izaera aztertzailea izango du, eta hautagaiak «gai» edo «ez gaiak» deklaratu dira. Hautagaiak mediku-bazterketako kausaren batean sartu direla egiaztatzen bada azterketa medikoan, «Ez gai» deklaratu dira eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, eta deialdi honetako eskubide guztiak galduko ditu.

Aurreko ariketetan kalifikazio onena lortu duten pertsonen artean, medikuntza-probetan bajaren bat gertatzen bada edo ezabaketaren bat gertatu bada, puntuazio txikiagoak lortu dituzten titularrei deituko zaie.

Bederatzigarrena. — Baldintzak egiaztatzea eta udaltzaingoko oinarrizko eskalako praktiketako lehen agenteak izendatzea

1. Hautatutako pertsonak behar bezala egiaztatu badute bigarren oinarrian ezarritako erregulazioaren arabera deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela, Alkate-zak Udaltzaingoa oinarrizko eskalako praktiketako lehen agente izendatuko ditu, prestakuntza-ikastaroa hasteko datarekin batera argitaratuko den ebazpenaren bidez.

2. Uko egiteak edo errekerimenduak ez betetzeagatik berrespenak gertatzen bada, Alkate-zak erabakiko du pertsona horiek hautaketa-prozeduratik kanpo uztea eta beste batzuekin ordezkatzeko. Horretarako, sailkapen-ordena jarraituko da, eta lekua egingo da uko egite edo bazterketen ondorioz deialdiko plaza-kopuruan hutsik gertatu diren plaza kopuru bera betetzeko.

Praktiketako funtzionario izendatutako hautagaiek egoera horretan izango dira prestakuntza ikastaroa hasten duenetik eta karrerako funtzionario izendatu edo hautaketa prozeduratik baztertu arte.

Prestakuntza ikastaroa egiten ez duenak, eta honen zergatia arrazoitzen ez badu, lanpostuari uko egiten diola esan nahi du eta, beraz, baliorik gabe geratuko dira beren ekintza guztiak.

Prestakuntza ikastaroak edo praktika-aldia burutzen ari direla edo behin amaitu ondoren, osasun-probak egin dakieke hautagaiei, hirugarren oinarriko f) beharkizuna betetzen dela egiaztatzeko. Hautagairen batek osasunagatik bazterketa dakarren gaitasunaren bat badauka, hautapen prozesutik kanporatuko da, eta deialdi honetan lortu dituen eskubideak galduko ditu.

Hamargarrena. — Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia

Prestakuntza ikastaroa eta praktika aldia ez dira batera egingo. Bakoitzaren iraupenak edo biak batera ezingo dute 30 hilabete baino gehiago iraun.

Prestakuntza ikastaroak eta praktika aldia derrigorrezkoak eta baztertzailerak izango dira, eta ez egiteak edo ez gaitzitzeak hautagaia beste barik hautaketa prozesutik baztertua izatea ekarriko du. Halaber, deialdi honetan zehazten diren Udaltzain lanpostuaren eskubide guztiak galduko ditu.

Prestakuntza ikastaroaren eta praktika aldiaren ebaluazioa indarrean dagoen ikasketaren arabera egingo da. Prestakuntza ikastaroa edo praktika-aldia gaitzitzen ez duten ikasleek ez gai kalifikazioa izango dute eta, beraz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira. Gauza bera egingo da ikasketa planean aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituztenekin.

a) Prestakuntza ikastaroa

Prestakuntza ikastaroa Euskal Herriko Poliziaren Akademian edo bere zuzendariak izendatuko prestakuntza-lekuan egingo dira. Ikastaroa indarrean dagoen ikasketa planaren arabera egingo da, aurreikusitako erregimen eta iraupenarekin. Ikastaroaren hasiera Euskal Herriko Poliziaren Akademiako zuzendariak erabakiko du, eta dagokion Udalaren Iragarki Taulan eta web orrian argitaratuko da.



Prestakuntza ikastaroaren ebaluazioa Udaltzaingoaren oinarritzko eskalaren udaltzain kategorian sartzeko oinarritzko ikastaroaren Ikasketa Planean ezarritakoaren arabera egingo da. Plan hau Euskal Herriko Polizia Akademiaren zuzendaritza batzordeak onartua da. Ikastaroa gainditzen ez duten ikasleak ez gai kalifikazioa izango dute eta, beraz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.

Prestakuntza ikastaroaren azken kalifikazioa Euskal Herriko Polizia Akademiaren Iragarki Taulan argitaratuko da. Euskal Herriko Polizia Akademiaren zuzendariak azken kalifikazioen berri emango dizkio deialdia egin duen organoari.

b) *Praktika-aldia*

Praktika-aldia prestakuntza ikastaroa gainditu duten hautagaiak egingo dute urtebeteko epearen barruan eta, euren jarduera-esparrua kontuan izanda, egokien iritzitako zentro edo bulegoetan. Praktika-aldien helburua hautagaiak herri poliziaren egitura eta funtzionamendua ezagutzea da.

Praktika-aldien ebaluazioa, Euskal Herriko Polizia Akademiaren Hautaketa eta Jarraipen Zuzendaritzari dagokio. Ebaluazioan hautagaiak udaltzain lanpostuaren inguruan erakutsitako egokitasuna neurtuko da. Besteak beste, udaltzain lanpostuaren egin-beharrak neurtuko dira.

Praktika aldiko azken balorazioa gai edo ez gai izango da, eta Udaleko Iragarki Taulan eta Polizia akademiarenean argitaratuko da.

Hamaikagarrena. — *Karrerako funtzionarioak izendatzea eta jabetza hartzea*

Hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapen-ordena zehazteko, oposizio-fasean, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian lortutako kalifikazioak batuko dira.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20.4.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, gaitasun bera izanez gero, lehentasuna emango zaie emakumeei Administrazioako kidego, eskala eta kategorietan, baldin eta emakumeen ordezkaritza 40tik beherakoa bada, salbu eta, beste hautagairen batek, sexu-arrazoi diskriminatzaileak ez egonik, neurria ez aplikatzea justifikatzen badu, esaterako, enplegua lortzeko zailtasunak dituzten kolektibo bateko kidea bada.

Aurreko paragrafoan araututakoari kalterik egin gabe, berdinketak bere horretan jarraituz gero, ordena honela erabakiko da: lehenik, oposizio-fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde; bigarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoa denbora gehien eman duenaren alde, eta, azkenik, adin handiena duenaren alde.

Hautagaiak, prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko dira, udaltzaingoko lehen mailako agente-plazarekin, praktika-aldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan, eta, halaxe, udal honetako udaltzaingoko lehen mailako agente-plaza jabetzan hartuko dute. Izendapen horiek dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira.

Lanpostu horien esleipendun gertatzen diren udaltzaingoko funtzionarioek ezin izango diete uko egin lanpostuei, eta, aldi berean, ezin izango dute parte hartu kargua hartu eta hurrengo bi urteetan deitzen diren lehiaketetan, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 69.3 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Erregelamenduaren 14.2 artikuluan ezarritako salbuespenarekin.

Izendatutako hautagaiak lanpostuaren jabetza hartu behar dute izendapena argitaratu eta hamar eguneko epean. Horrela egingo ez balute, pisuzko arrazoirik egon ezik, beren jarduketa guztiak ondoriorik gabe geratuko lirateke eta karrerako funtzionario izateko eduki litzakeen eskubide guztiak galduko litzuke.

Hamabigarrena. — *Gorabeherak eta inpugnatzeko moduak*

Oinarri hauek aurreikusten ez duten guztirako, eta oposaketaren funtzionamendu zuzena bermatzeko, epaimahaiak ahalmen osoa du sortu daitezkeen zalantzak argitzeko eta dagozkion akordioak hartzeko.



Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzio agintearen aurrean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera, betiere, lege-testu hauetan ezartzen dena aintzat harturik: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikulua eta uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren 29/1998 Legearen 46 artikulua.

**ERANSKINA****GAITEGIA****ZATI OROKORRA**

1. gaia: Udalerria: Kontzeptua eta udalerriko elementuak. Udal mugapea. Populazioa. Udalaren aplikazio-eremua eta antolaketa. Eskumenak: alkatearenak, Udalbatza-renak, Tokiko Gobernu Batzordearenak eta informazio-batzordeenak.
2. gaia: Administrazio prozedurak. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio prozeduren faseak: prozeduren hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.
3. gaia: 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko ikuskizunei eta jolas jardue-rei buruzkoa: Jendaurreko ikuskizunei eta jolas jardueri aplikatu beharreko araubidea. Zaintza, kontrola eta ikuskapena. Zehapenen inguruko arauak.
4. gaia: 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jar-dueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena: IV. kapitulua, ordutegiak.
5. gaia: Bide Segurtasunari buruzko Legea: I. Eranskina.- Oinarrizko kontzeptuak, 1etik 9ra, 12tik 24ra eta 54tik 73ra.
6. gaia: Bide Segurtasunari buruzko Legea: Arau-haustek (V. titulua, I. kapitulua).
7. gaia: Bide Segurtasunari buruzko Legea: Zehapenak (V. titulua, II. kapitulua).
8. gaia: Bide Segurtasunari buruzko Legea: Erantzukizuna (V. titulua, III. kapitulua).
9. gaia: Bide Segurtasunari buruzko Legea: Zehapen-prozedura (V. titulua, IV. kapi-tulua).
10. gaia: Bide Segurtasunari buruzko Legea: Zirkulazioko jokabide-arauak (II. titulua, I. kapitulua).
11. gaia: Bide Segurtasunari buruzko Legea: Puntuak galtzea dakarten arau-haus-teak (II. Eranskina).
12. gaia: Bide Segurtasunari buruzko Legea: Gidatzeko baimenak (IV. titulua, II. ka-pitulua).
13. gaia: 137/1993 Errege Dekretua, urtarilaren 29koa, Armen Araudia onartzen duena: Xedapen orokorrak. Armen titulartasun agiriak. Lizentziak, baimen bereziak eta armak edukitzeko txartela.
14. gaia: 5/2000 Lege Organikoa, urtarilaren 12koa, adingabeen erantzukizun pena-la arautzen duena: I., II. eta III. tituluak.
15. gaia: 6/1984 Legea, maiatzaren 24koa, Habeas Corpus prozedura arautzen duena.
16. gaia: 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Ba-bestekoa. II. kapitulua: Dokumentazio eta identifikazio pertsonala. III. kapitulua: Herrita-rren segurtasuna mantentzeko eta berrezartzeko jarduerak.
17. gaia: 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa. Atariko titulua. I. idazpurua: Segurtasun-administrazioari buruz. I. atalburua: Organoak eta haien aginpideak. II. atalburua: Euskal Herriko poliziari buruz. Xedapen orokorrak. Kode deon-tologikoa.
18. gaia: 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa. III. idaz-purua: Euskal Herriko poliziako kideen estatutu-araubidea. I. atalburua: Funtzionario iza-tera iristea eta funtzionario izateari uztea. V. atalburua: Eskubide eta betebeharrak. VII. atalburua: Disziplinazko araubidea. V. idazpurua: Udaltzaingoei buruz.
19. gaia: 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun eta Indar Kidegoei buruzkoa. V. titulua: Udaltzaingoei buruz.

**ZIGOR KODEA**

- 20. gaia: Delituei buruzkoak (10. artikulutik 18. artikulura).
- 21. gaia: Erantzukizun kriminaletik salbuesteko eta erantzukizun kriminala arintzeko edo astuntzeko arrazoiak.
- 22. gaia: Delitu eta faltei dagokienez erantzukizun kriminala duten pertsonak.
- 23. gaia: Giza hilketa eta giza hilketaren formak.
- 24. gaia: Lesioak.
- 25. gaia: Sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituak.
- 26. gaia: Askatasunaren kontrako delituak: mehatxuak eta derrigortzeak.
- 27. gaia: Sorospen-eginbearra ez betetzea. Ohorearen aurkako delituak.
- 28. gaia: Bizitza pribatuaren, norberaren irudirako eskubidearen eta egoitzaren bor-
txaezintasunaren aurkako delituak: bizilekua, pertsona juridikoen egoitza eta jendau-
rrean zabalik dauden establezimenduak bortxatzea.
- 29. gaia: Ebasketak eta lapurretak. Ibilgailua erabiltzeko lapurreta eta ebasketa.
- 30. gaia: Herri Administrazioaren aurkako delituak: funtzionario-eroskeria. Eragi-
men-trafikoa.
- 31. gaia: Genero indarkeria eta etxeko indarkeria. Babes-agindua.

**PROZEDURA KRIMINALAREN LEGEA ETA 1/2004 LEGE ORGANIKOA,
GENERO-INDARKERIAREN AURKA OSO-OSOKO BABESA EMATEKO NEURRIEI BURUZKOA**

- 32. gaia: Atxiloketa: legezko baldintzak eta kasuak.
- 33. gaia: Auzipetuek eta lekukoek egindako adierazpenak.
- 34. gaia: Defentsa-eskubidearen egikaritzea, abokatuaren laguntza, eta atxilotuei eta
presoei eman beharreko tratua.
- 35. gaia: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka
oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa. IV. titulua – Zigor-arloko babesa. 62. arti-
kulua: Babes-agindua. Prozedura Kriminalaren Legeko 554ter artikulua: Babes-agindua.

UDAL ORDENANTZAK

- 36. gaia: Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza.
 - 37. gaia: Zirkulazioko udal ordenantza.
 - 38. gaia: Durango uriko trafiko eta aparkamendua arautzen duen ordenantza.
 - 39. gaia: Kale garbiketa eta hondakinak erretiratzeko ordenantza.
 - 40. gaia: Bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzea arautzen duen udal ordenan-
tzaren aldaketa.
- Durangon, 2020ko urtarrilaren 13an.—Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja